



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ahalordeak: DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

7. ERABAKIA: EUSKARA XARTAREN IZENPETZEA **ARROSATEGIA ETXEARENTZAT** (9.1 nomenklatura)

Auzapezak biltzarkideei aurkeztu die Arrosategia etxerako euskara xartaren ezartzeko proiektua. Xarta edo gutun hori hautetsi eta ortzaiztar boluntario talde batek, Plazara dispositiboak lagundurik, osatu du.

Auzapezak adierazi du honakoak direla xarta horren bi helburu nagusiak:

- Euskararen ezagutza, presentzia eta erabilera bermatzea dinamika iraunkor baten bidez.
- Euskaldun guziei, euskara ikasten duten guziei aitortuak izatea ahalbidetzea, eta eguneroko bizian euskaraz jardutea; nork bere ikuspegitik euskararen aldeko urrats berri bat egin ahal dezan.
-

Auzapezak adierazi du hizkuntza-biziaren oinarritzko zortzi arauk osatzen dutela euskararen aldeko lehen xarta hau. Herri Biltzarrari proposatu dio honako xarta onartzea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ONART DU, Ortzaize herrian euskararen sustatzeko Euskara Xarta

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari dokumentu horren izenpetzeko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 8

Adierazi diren bozkak: 10 (9 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 10

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 13an

Auzapeza:

Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.